

Piura-Peru 2010

Eusko Jaurlaritzako Euskal “Gaztedia Lankidetzan” programari esker eta Egoaziaren bitartez pasa den uda Piuran pasatu dut sentsibilizazio proiektu batean parte hartzen.

Uztailak 7an iritsi nintzen Piurara. Piura, Peruko iparraldeko hiri bat da. Bidaia osoa lasai egin nuen, hurrengo hiru hilabeteak pasatuko nituen hiri hartako lurra zapaldu nuen arte. Momentu hartako urduritasunak ez zidan uzten bidaia osoko nekea sentitzen. Une hartan hasi zen abentura, hiru hilabete neuzkan hango hiriaz eta jendeaz ahalik eta gehien ikasteko.

Desberdintasunak, Piuran behintzat, ez dira horren nabarmenak, hiri bat delako, suposatzen dut. Dena den hiri baten egoteak badauzka bere alde onak eta txarrak. Alde batetik, gauzak egiteko aukera gehiago dago baina bestetik, arriskua, herrixka batean baino handiagoa da, batez ere atzerritarrentzat.

Bakarrik joan nintzen eta hasiera ez zen batere erreza izan. Nahiz eta etxekoen harrera oso ona izan, eta ekipoko neska mutilena ere, beraien ohiturak, hitz egiteko era, egiteko moduak, etabar, ikasi beharra nituen nahitanahiez, beraienkin ondo konpontzeko. Gainera, hirian nengoen eta hasierako ezjakintasunak asko mugatzen ninduen gauzak egiterako orduan.

“Escuela deportiva Eibar Piura”-n laguntzen nuen arratsaldetan, eskola hau, baliabiderik gabeko haurrentzat da batez ere. Horrela auzoko girotik atera



eta kirola egiteko aukera ematen zaie umeei. Duela 5 urte sortu zen. Ez dute baliabiderik materiala erosteko, eta oraindik ez dute toki seguru bat entrenamenduak aurrera eramateko. Baina, hala ere, ez dute beraien ametsean etsitzen. Harrigarria da ekipoko neska- mutilek, Eibarko koloreak nola defendatzen dituzten ikustea.

Nire egonaldiko helburuetako bat, beraien izena zabaltzea izan da. Beraz, entrenamenduetan laguntzeaz aparte, eta nire perfila aprobetxatuz, heziketa fisikoko irakasleentzat eta entrenatzaileentzat formazio proiektu bat aurkeztu genuen “Cesar Vallejo” unibertsitatean.

Esperientzia ezin hobea izan da, alde batetik, beste ikuspegi bat edukitzeko baliagarria izan zaidalako eta bestetik, hango jendearekin elkarbanatzeko aukera izan dudalako.

Benetan eskertuta nago eman didaten tratuarekin, nire helburua bertakoen artean, bat gehiago izatea zen eta gutxinaka gutxinaka lortu nuen beraien dinamikan sartzea.

Hemendik, eta nire ikuspuntu apaletik, Eibarko kirola taldeei laguntza eskatzea nahiko nuke. Erabiltzen ez diren ekipajeak edota materiala jasotzeko prest daude Piurako neska mutilak. Beraz, bidaltzea posible balitz... Harro erabiliko dute jasotakoa!

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiet Egoaiziako neskei aukera paregabe hau emateagatik, eta momentu txarretan eman didaten laguntzagatik.

Maixa Mendieta.